



HUMANITATE DIGITALAK, GENEROA ETA ARTEA

JARDUNALDIA

NON ETA NOIZ?

Errenteriako Lekuona Fabrika

2021-10-16, 10:00-14:00

IZEN EMATEA

<https://sarrerak.errenteria.eus/>

ANTOLATZAILEAK



EGITARAUA

10:00-10:15 Sarrera

1. ATALA: Ezagutza libre berdinzalea: artista eta gizartearen giltzarri

10:15- 11:15 Aurkezpenak

- Marisa Barrena - WikiEmakumeok
- Marina Arranz eta Maite Luengo - Emartistak
- Nerea De Diego - Uharte Zentroa

11:15-11:45 Elkarren arteko solasaldia eta galderak

11:45-12:15 Atsedena

2. ATALA: Artistekin teknologia eta sorkuntzari buruz solasean

12:15-13:15 Aurkezpenak

- Jugatx Astorkia
- Onintza Etxebeste Liras
- Oihane Iraguen

13:15-13:45 Elkarren arteko solasaldia eta galderak

13:45-14:00 Itxiera eta agurra

EZAGUTZA LIBRE BERDINZALEA: ARTISTA ETA GIZARTEAREN GILTZARRI

Marisa Barrena Larruzea

Wikiemakumeok sareko wikilaria eta Euskal Wikilarien Kulutur Elkarteko kidea

WIKIPEDIAKO GENERO ARRAKALA MURRIZTEN

Hitzaldiaren nondik norakoa Wikiemakumeok Wikipedian daramagun bidearen berri ematea da eta emakume artistak proiektu honetan parte hartzea animatzen saiatzea. "Lo que no se nombra no existe"¹ eta "Izena duen guztia omen da" dira Wikiemakumeon slogan edo leloak. Ahalegina egiten ari garen arren, emakumeon presentzia oso urria da Wikipedian, %20 bueltan dabil zenbait hizkuntzatan, eta euskarazko Wikipedian ere heldu berri gara kopuru horretara. Oraindik helburutik urrun gaude. Oraintsu 381.000 artikulura heldu gara euskarazko Wikipedian, horietatik 10.000 emakumeren biografiak ditugu. Egoera hori aldatzeko zenbait pausu eman dezakegu: emakume artisten biografia berriak sortu, emakume artisten biografiak euskarara itzuli, emakume artisten aipua Wikiesanak gunean bildu, kategoriak sortu eta sartu, Wikidatan datuak sartu, Commons-era baliabideak igo...

¹ Eulalia Lledó filologo feministaren esana.

Marina Arranz Bombin eta Maite Luengo Aguirre

Artearen historialariak eta Emartistak 2000-2020 proiektuko kideak

ARTEAREN HISTORIA PAREKIDEAREN ERRONKA: EUSKAL WIKIPEDIA ETA EMARTISTAK 2000-2020 PROIEKTUA MINTZAGAI

EMARTISTAK 2000-2020 artea eta generoa ardatz dituen ekimena da, esparru digitalean sortua, Humanitate Digitalen inguruko UEU eta EWKEren laguntza bati esker. Wikipedian emakume gisa identifikatzen diren euskal artisten ikusgaitasuna lantzea izan da proiektuaren muina. Hasteko, artearen historiaren eraikuntza tradizionalari eta feminismoak egindako ekarpenei buruz hausnartuko dugu. Gero, Wikipediak artearen historia zabala eta ez baztertzailerik ezagutarazi eta transmititzeko eskaintzen dituen aukeren eta oztopoen inguruan egingo dugu gogoeta. Azkenik, emakumezko euskal sortzaileek Wikipedian duten presentziaz mintzatu gara, artisten biografietan eta artelanen irudietan arreta jarritz. Horrela, Emartistak proiektuaren baitan egindakoetatik abiatuz, ekimenaren nondik norakoak, motibazioa, erronkak eta etorkizunerako bidea ezagutzera emango ditugu.

Nerea de Diego

Uharte Zentroko ko-zuzendaria eta Topategia sareko sustatzailea

NAFARROAKO AGENTE ARTISTIKOEN MAPEOA: TOPATEGIA

Uharte Zentroak 2017an Nafarroako agente artistikoen mapeoa abian jarri zuen. Zentroko proiektua martxan jartzen ari zen eta komunitate artistikoa zer den galderari erantzuteko helburuarekin artistei zuzendutako deialdi ireki bat ireki zen. Testuinguru honetan Topategia sortzen da, Nafarroako agente artistikoen erreferentziak biltzen dituen espazio birtuala. Ikuspegi artistikoaren aniztasuna bildu eta islatzen duena. Agente artistiko horiek zenbait irizpideren arabera arakatzeko aukera ematen duen bilatzailea dauka eta norberak bere profilean sartzen dituen datuen arabera osatzen dira bilaketa-irizpideak. Halaber, erraz erabiltzeko eta datu-baseko edukiak atzitu ahal izateko helburuarekin sortu da. Bertan izena ematen duten agente artistikoak sustatzeaz gain, Topategiak ikerketari ere laguntzen dio, bai artista-elkarte barruan, bai kultur eta humanitateen ikerketei ere.

2

ARTISTEKIN TEKNOLOGIA ETA SORKUNTZARI BURUZ SOLASEAN

Jugatx Astorkia

Artista eta Arte Garaikidean doktoregia

ARGIAREN MATERIALIZAZIOA ARGAZKI EREMU HEDATUAN

Argazkigintzaren arloan argiaz hitz egitea irudiari buruz hitz egitea da, eta honek daukan izaera eta gorputza irudiak berak irudikatzen duena baino haratago doa. Argia grafikoki ikustarazten eta gorpuzten laguntzen duten prozesu artistikoekin lan egitean, egoera analogiko batetik digitalera igarotzean – eta alderantziz- irudiaren barruan, bere materialen suertatzen diren eraldaketak zalantzan jartzen digute begien aurrean duguna. Materiala denaren eta materiala ez denaren arteko atalase lausoa, pantailen barrualdearen eta kanpoaldearen artean gertatzen denak, “artekotasun” horrek, formatu anitz eskaintzen du irudia beste modu batzuetara ikusi eta ulertu ahal izateko.

Onintza Etxebeste Liras

Artista, ikertzailea eta unibertsitate irakaslea

AZTARNA ERAGILEAK

Arteari loturiko prozedurak agente desberdinen arteko elkarrizketak behatzeko, esperimentatzeko eta ukigarri egiteko eremu dira. Hala, sortze-prozesuetan ekoizten diren harremanak, maila tekniko nola diskurtsiboan, artelanen eraketan parte hartzen duten gertakari, material eta gailu guzti-guztien araberakoa da. Gailu horiek eragileak dira, eta ikuspegi bat edo beste ondorioztatuko duten aztarnak sortzen dituzte. Zentzu honetan, ondarearen eta artearen arteko loturak adierazpen berri batzuetan barneratzeko aukera ematen du: laborategi batean bezala motiboa, testuingurua, gerturatzeko modua, erabiltzen diren tresnak, materialak, edota horiek markoztatzen dituzten baldintzak emaitza desberdinak eragin ditzazkete. Baserriaren inguruan garatutako prozesu batzuk aintzat hartuta, arte eremuaren eta aztarna eragileen ahalmen aktibo eta performatibo hori izango da hizketagai.

Oihane Iraguen

Artista, ikertzailea eta unibertsitate irakaslea

HOTS BAT GORPUZTU

Gaur egun, soinu-praktika ikertzen dut akusmatikatik, hots, soinua sortzen duen iturria ezagutu gabe entzutea sustatzeko prozesu/praktikatik. Norberaren entzutearen bidez entzutea oztopatzen duen praktika. Entzuteko asmoari berari galdetzen diona, ez soinuari zuzenean. Akusmatika ezkuturiko praktika garaikidea da, erresistentziarako tresna, gorputzik gabeko ahotsa, ciborg bat, soinu fantasmagoriko bat. Horren guztiaren ondorioz praktika hori bi noranzkoa da: periferian dauden kolektiboak sortu eta indartzen ditu eta aldi berean babesleku propioak eta iruditeriak, banakakoak zein taldekoak, indartzen ditu. Entzutea inprobisatzea da, espazio bat eratzea. Entzutea erresistentziarako tresna bat da, ekintza periferiko bat, ezohikoa. Bitarteko soinu-praktikak ikertzen ditut, bozgorailuak erabiltzen dituzten eta soinu-iturriak ezkututzen dituzten praktikak alegia. Ziberfeminismoa jardun akusmatikotzat jotzen dut: pantailak eta bozgorailuak errezel opaku-birtuala baitira, gorputzik gabeko ahotsak eta grafiarik gabeko testuak igarotzen diren soinu-irudi espazio immaterialak.